

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren irailaren 6ko 232/2019 Foru Agindua, zeinak formulatzen baitu Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa, Antxo Abarka pasealekuko ekipamenduei buruz

Antxo Abarka pasealekuko ekipamenduei dagokienez Guardiako plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren eraginpean dago. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko hirigintza agiria jaso du, bai eta ingurumen agiri estrategikoa ere, zeina Guardiako Udalak igorri baitu eta Ingurumen Ebaluazioarek buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukia baitu.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aipatutako agiriak jaso ondoren, hasiera eman zion kontsultak egiteko aldiari, eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunentzat, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko irailaren 3an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/84 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak.

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.

Guardiako herrigunearen erdialdean dagoen Antxo Abarka kalean dauden udalaren eraikin batzuen inguruko aldaketa puntualak bi xede ditu, sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotzen den moduan:

– II.4.1 planoko (Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri azpiegitura, bide sarea eta zonakatzeko xehatua: Guardia) grafia zuzentzea; izan ere, 14 lurzatiko eraikinak hirugarren sektoreko erabilera duela jartzen du, baina benetan hainbat ekipamenduri dagokio (egun musika gela bat, Gizarte Segurantzaren bulegoak eta Bake Epaitegia daude han).

– Eraikin horietan baimenduta dauden erabilerak zehaztea, bat etorri indarrean dagoen arau subsidiarioen araudi orokorraren 25. artikuluekin, eta, horrela, egungo ekipamenduari atxikirik geratuko dira, salbu eta zati bat, zeinetan hirugarren sektoreko erabilera baimenduko den.

Honako taula honetan agertzen da zehatz-mehatz zein den aldaketa puntualaren xedea:

LURZATIA	ARRAZOIA	ERAGIN EREMUA	GUARDIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN EGUNGO EGOERA	ALDAKETA PUNTUALEAN AURREIKUSITAKO EGOERA
12 lurzatiaren zati bat	Aldaketa	Hirigintza fitxa eta grafia	Komunitate ekipamendua	Merkataritza eta etxebizitzekin bateragarria den hirugarren sektoreko erabilera (berariaz debekatuta ostalaritza erabilera)
14 zenbakia	Zuzenketa	Grafia	Hirugarren sektorea	Komunitate ekipamendua
Denak	Zuzenketa	Hirigintza fitxa	Komunitate ekipamendua: 600 m ²	Komunitate ekipamendua: 728 m ²
Denak	Aldaketa	25. artikulua	Ekipamendu erabilera	Komunitate ekipamendu erabilera


Aldaketa puntualaren hirigintza agirian adierazten den bezala, “ez da eremuko beste hirigintza parametrorik aldatuko, ezta hirigintza fitxaren edukia ere; ez da ezarritako eraikigarritasuna handituko, eta ez dio egitura antolamenduaren beste ezein parametrori eragingo”.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Agiri honetan proposatutako aldaketa puntualak Antxo Abarka kaleko 16. zenbakiaren inguruan kokatuta dauden udal eraikinei eragiten die. Eraikinok 3 poligonoko 12, 13 eta 14 katasstro zenbakiko lurzatietan daude, denak ere herrigunearen erdialdean kokatuak.

Eraikinak Antxo Abarka kalearen adar baten bi aldeetan daude kokatuta, Guardiako herri-gune historikoko ekialdeko magalean. Eraikin horiek bi solairu dituzte, eta haietako bat lurzorua-aren kontra dago eraikia, erdisoto gisa. Antxo Abarka kaleko adarretik sartzen da bi eraikinetara eta haren gainetik dagoen metalezko pasabideak lotzen ditu bi eraikinak.

Eraikinetan hainbat udal ekipamendu daude eta zenbait lokal beste administrazio publiko batzuri laga zaizkie.



Aldaketa puntualak eragindako eraikinak markatuta dituen katasstro planoa



Aldaketa puntualaren eremuaren katasstro planoa, gainean ortoargazkia duela

1.3. Aztertutako aukerak.

Alde batetik Guardiako arau subsidiarioetan agertzen den grafiaren eta errealtatearen arteko aldea zuzendu nahi da, eta bestetik, aldaketak egin nahi dira hirigintza fitxan, egun baimenduta ez dauden erabilerak jasotzeko.

Lehenengo aldaketari dagokionez, bi aukera besterik ez daude. Zero aukera edo ez esku hartzeko aukera hautatuz gero, errealtatearen eta dokumentuetan jasotakoaren arteko aldea bere horretan geratuko da, eta aldaketa puntuala eginez gero, II.4.1 planoko (Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri azpiegitura, bide sarea eta zonakatze xehatua: Guardia) grafia zuzenduko da.

Bigarren aldaketari dagokionez, justifikaturik dago 12 lurzatiaren zati baten erabilera “komunitate ekipamendua” izatetik “merkataritza eta etxebitzekin bateragarria den hirugarren sektorea (berariaz debekatuta ostalaritza erabilera)” izatera pasatzea, bi erabilera horiek jasota baitaude arau subsidiarioen araudi orokorreko erabilera araubideetan. Kasu honetan hainbat aukera daude; izan ere, egungo “komunitate ekipamendu” erabilera bere horretan utz daiteke, aldaketa puntuala egin eta “merkataritza eta etxebitzekin bateragarria den hirugarren sektorea (berariaz debekatuta ostalaritza erabilera)” erabilera aldatu daiteke, edo 25. artikuluan baimendutako beste erabilera batzuetara alda daiteke (aisialdi ekipamenduak, industria, upategiak etab.), baina azken hori alde batera utzi du sustatzaileak, herritarrei eragozpenak sor diezazkiekeelako.

2. Kontsulta fasearen laburpena.

2019ko martxoaren 29an Ingurumen Iraunkortasun Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Hona hemen kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda eta haietatik zeinek erantzun duen:

URA – Uraren Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Guardiako Udala	
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiako Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/84 espedientean eta www.araba.eus webgunean dago alegazio edo oharren kopia osoa):

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak honako ohar hauek egin ditu: “Arau subsidiarioen aldaketa eremua Guardiako herrigunean dago eta ez dio lurzoru ez urbanizagarriari eragiten; ondorioz, ez du inolako eraginik izango nekazaritza eta abeltzaintza jardueran. Horrez gain, ez du eraginik izango Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan.”

- Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak hau jakinarazi du: “Dokumentazioa aztertuta, jakinarazten dizugu ez dela aurreikusten plan horren eremuan kultura ondareari eragingo zaionik”

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, “aldaketa horrek EZ dakar eragin arkeologikorik”

- URA Uraren Euskal Agentziak 2019ko apirilaren 15ean lehenengo txostena eman zuen, eta honako hau adierazi zuen: “Zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diogu, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan komenigarritzat jotzen badu, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritz”

URA Uraren Euskal Agentziak bigarren txostena eman zuen 2019ko ekainaren 3an, eta aldaketa puntualaren laburpena egin ondoren, honako hau ondorioztatu zuen: “Agentzia honek ez du hauteman uren arloko eraginik. Beraz, ez du bere eskumenen arloko oharrik egingo kontuan har daitezen, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egokitzen jo dezakeena gorabehera”

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak honako hau ondo-rioztatu zuen egin zuen txostenean: “Espedientea aztertuta, ikusi da ingurumenari dagokionez izapidetzea proposatzen den plangintza aldaketak ez diola eragingo historia eta kultura balioa dela eta babestuta dagoen inolako elementu edo higiezini, eta beraz, Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak uste du ez dagoela oztoporik izapidetu dadin”

• Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak, proposamenaren laburpena egin ostean, adierazi du natura ondarea oso gutxi kaltetuko duela, aldaketak Guardiako herrigune historikoko eraikinetan baimendutako erabilerak besterik ez baititu aldutuko Hala eta guztiz ere, ez du nahikotzat jotzen ingurumen agiri estrategikoan biodibertsitateak jasan ditzakeen kalteei buruz egindako azterketa, ez baita aztertu zein kalte jasan dezaketen eraikinen zuloetan bizi diren kiropteroek eta gau harrapakariak edota aldaketaren xede diren eraikinen atzealdeko zuhaitzdun ezpondan bizi diren beste espezie batzuek. Hori dela eta, zenbait baldintza jarri ditu eremu horretan esku hartzeko:

Eraikinak birmoldatzean kiropteroak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– “Zura intsektizidez tratatzean, organokloratuak edo organofosforatuak dituzten produktuen ordez, erraz biodegradatzen diren produktuak erabili beharko dira.

– Kiropteroen hazlekurik aurkituz gero, hazkuntza alditik (ekaina, uzta eta abuztua) at teilaberritu eta eraberritu beharko dira eraikinak, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek barne) eman beharko dira”

Eraikinak birmoldatzean gau harrapakariak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– “Era horretako eraikinetan programatzen den edozein esku hartze egin baino lehen, teknikari gaituek alde aurreko azterketa egin beharko dute.

– Era horretako espezierik dagoela konturatuz gero (egragropiloak edo bestelako hondakinak ikusiz gero, gauez entzun zaielako bertan direla ziur egonez gero etab.), Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko zaio, kalterik ez eragiteko neurri egokienak adosteko (lanen kronograma egokitzea edo beste)”

Zuhaitzak dauden eremua babesteko neurriak:

– “Guardiako herrigune historikoko ekialdeko magalaren inguruan egiten diren esku hartzeak gauzatzean ziurtatuko da zuhaitzei ez zaiela inolako kalterik eragiten, bereziki handienei. Ale horietakoren bat ordezkatu behar bada, bertako espezieak erabiltzea lehenetsiko da”

• IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: “Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan” Eta honako hau ere ohartarazi du: “Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”

3. Aldaketa puntualaren ingurumen inpaktuaren deskribapena.

Sustatzaileak aurkeztutako agiritan bertan jasota dagoen moduan, eta zehazki ingurumen agiri estrategikoan, aldaketa puntuala denez, ez da aurreikusten ingurumenean kalte nabarmenik eragitea.

Aldaketa puntualaren xedea da II.4.1 planoko (Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri azpiegitura, bide sarea eta zonakatzeko xehatua: Guardia) grafia zuzentzea eta aldaketa puntualaren eremuko eraikinetan egungo erabileren antzeko erabilera gehiago ezartzea. Horrenbestez, hirigintza agirian adierazten den bezala, “ez da eremuko beste hirigintza parametrorik aldatuko, ezta hirigintza fitxaren edukia ere; ez da ezarritako eraikigarritasuna handituko, eta ez dio egitura antolamenduaren beste ezein parametrori eragingo”

Dena dela, gerta liteke aldaketa puntualaren ondorioz obrak eta konponketak egitea eremuko eraikinetakoren baten barruan, aldaketa hau behin betiko onetsi eta gero baimenduta geratuko diren erabilera berrietara egokitzeko.

Aldaketa puntual hau onartuz gero gauzatzen diren konponketa, mantentze eta eraikuntza lan guztiak fauna basatiari ahalik eta kalterik txikiena eraginez egin behar dira (batez ere esku-hartze eremuko eraikinetakoren baten barruan bizi litezkeen kiropteroei eta gau harrapakariari), eta eraikinen atzealdeko zuhaitz eremuari ere ahalik eta kalte txikiena eraginez, nahiz eta eremu horretan zuhaitz espezie exotikoak izan batez ere. Gainera, lanen ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litzakeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu behar dira.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak.

Ingurumen agiri estrategikoan, ingurumen integraziorako neurriak aurreikusten dira atal honetan: "Klima aldaketa kontuan hartuta, aldaketa puntualaren ondorioz ingurumenari eragin dakioken edozein kalte prebenitu, murriztu eta ahal dela zuzentzeko aurreikusitako neurriak". Neurri horiek xede dute, nagusiki, esku-hartze eremuko eraikinei irizpide ekologikoak aplikatzea (baliabideak, kontsumoa eta kutsadura murriztea). Horiez gain, honako baldintza hauek ere sartu behar dira Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko hirgintza agiriaren araudian:

Aldaketa puntual hau behin betiko onetsi ostean mantentze eta konponketa lanak gauzatuko balira esku-hartze eremuko eraikinetan, ingurumen integraziorako neurri osagarri hauek hartu beharko dira:

- Eraikinak birmoldatzean kiropteroak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– "Zura intsektizidez tratatzean, organokloratuak edo organofosforatuak dituzten produktuen ordez, erraz biodegradatzen diren produktuak erabili beharko dira.

– Kiropteroen hazlekuri aurkituz gero, hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at teilaberritu eta eraberritu beharko dira eraikinak, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek barne) eman beharko dira".

- Eraikinak birmoldatzean gau harrapakariak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– "Era horretako espezierik dagoela konturatuz gero (egragropiloak edo bestelako hondakinak ikusiz gero, gauez entzun zaielako bertan direla ziur egonez gero etab.), Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko zaio, kalterik ez eragiteko neurri egokienak adosteko (lanen kronograma egokitzea edo beste)".

- Aldaketa puntuala garatzeko jardueren ondorioz egin litezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, tanga iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sor daitezkeen hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea, Antxo Abarka pasealekuko ekipamenduei buruz.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko irailaren 6a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA